

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### **Ekinbide eraikuntzaren zatikazko eraberritzaren egitasmoaren hasierako onarpena**

Udalbatzak, 2018ko otsailaren 12an egindako batzarrean, beste batzuen artean, honako Erabaki hau hartu zuen:

Lehena. "Ekinbide eraikuntzaren zatikazko eraberritzea" deritzon egitasmoa hasieraz onartzea.

Egitasmoa Inforlur SL merkataritza-etxeak burutu du, eta beronen zenbatekoa 101.177,62 eurotakoa da (BEZ barne).

Bigarrena. Agiria hogeit hamar lan-egunetan jendaurreratzea, beti ere agiri horri dagokion iragar-  
kia ondoren aipatuko diren azken argitalpenen biharamunetik hasita: ALHAOean ofizialean,  
udaletxeko iragarki taulan eta lurralde historikoan zabalpen handiena duen egunkarian.

Hirugarrena. Udalaren kontratatzailearen profilean, ([www.barrundia.eus](http://www.barrundia.eus)) agiriari dagokion iragarkia argitaratzea.

Ozaetan, 2018ko martxoaren 14an

*Alkatea*

*AFRO OLABE MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ*